

Familia agurgarria:

2020-2021 ikasturtea planifikatzen hasiak gara. Hori dela eta zuekin harremanetan jartzen gara hurrengo pausoa emateko.

Covid-19a dela eta, ezohiko egoera honetan, aurrematrikula eskabidea betetzeko honako bide hau proposatzen dizuegu:

On-line: maiatzaren 18tik 29ra. Izen-emate orria atxikita duzue. **Fitxategia deskargatu eta Adobe Acrobat programan bete.** Ondoren, fitxategiari ikaslearen izen-abizenak ipini. Matrikula orriaz gain, medikazioa emateko baimena ere bete eta dokumentazio guztia (matrikula orria + medikazioa emateko baimena) matrikulak@talaiabhi.net postara bidali, mesedez. **Ahal den neurrian On-line eran egitea eskatuko genizueke.**

On-line arazoak bazenituzte ikastetxearekin harremanetan jarri: Inikaz edo telefonoz 943899496 (08:30-14:00 bitartean).

Matrikula betetzeko informazio lagungarria Institutuko Webgunean aurkituko duzue
(<http://www.talaiabhi.hezkuntza.net/eu/inicio1>):

-Jakin ezazue zuen seme/alabak gaiaren inguruko informazioa jaso dutela eta sentitzen dugu zuekin pentsatuta genuen aurrez-aurreko bilera ez burutu izana.

Aldez aurretik, eskerrik asko.

Ondo izan

ZUZENDARITZA TALDEA